

**ehbildu**

# **Orozkoko Udalak hainbat proiektu adostu ditu EH Bilduren ekimenez**

Orozkoko Udalean ordezkatuta dauden hiru taldeek, Adie, EAJ eta EH Bilduk aurrekontu soberakinarekin hainbat proiektu aurrera eramatea adostu dute, EH Bilduk proposatuta.

Udal-eraikinetan eguzki-plakak instalatzeko helburuarekin, Orozkoko Udalak eraikinen energia-ziurtapenerako eta jasangarritasun energetikorako jarduera-plana egiteko lanak hasteko; puntu beltzak ezabatzeko, horrela behar duten herriko zonaldeetan argiteria handitzeko eta beharrezkoak diren teknikariak kontratatuz, lehen sektorean belaunaldi aldaketa suspertzeko neurriak martxan jartzeko plan bat egiteko konpromisoa hartu du Orozkoko Udalak.

Akordio hau 2023rako udal aurrekontuetako eztabaidan EH Bildu Orozkok Adieko Udal Gobernu Taldeari aurrekontu soberakinarekin aldebakarrez jarduteari utzi eta gerakinarekin zer egiten den denon artean adostea proposatu ostean iritsi da. Gainera, onartu eta adostu diren proiektu guztiak EH Bildu Orozko Udal Talde Politikoak proposatu zituen 2023ko udal aurrekontuetarako, baina Adiek guztiak baztertu zituen.

Legegintzaldi honetan, lehen aldia da Udalaren diru-kutxan inbertitu gabe geratzen den diruarekin egiten dena modu adostu batean erabakitzen dela.

Orozkon, 2023ko martxoaren 13an  
**EH Bildu Orozko Udal Talde Politikoa**